

**ZENBAT BURU**

Maritxu Loiola

**ERREPORTAJEA**

Ibai-arrantza

Elgoibarren

# BAREN

2000ko martxoaren 31 o  
111. urtea - 315. zkia

It

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



**UDALETXETIK**

Eulogio Perezek  
zinegotzi kargua  
utzi du

**BERBETAN**

Iñaki San Sebastian  
'Fatronik'eko  
Ikerketa zuzendaria

**KIROLA**

Bihar, apirilak 1,  
Elgoibarko  
9. Duatloia



San Lorentzo erreka  
**Elgoibarko arrantzaleen  
azken altxorra**

"Amuarrainak begi bi, sei eskailuk hamabi" (Esaera zaharra)

**ENPRESARAKO GOI MAILAKO IKASKETAK****TXANDAKAKO INGENIARITZA  
IMH-ENPRESA**

**XXI. mendeko ingeniariak trebatzen ditugu.**

**Teknologia baino gehiago.**

- industria munduan integratutako enpresa-ingeniarien prestakuntza dugu helburutzat.
- Lanbide Hezkuntzan (industria arloa) titulaturako gazteentzako ikasketak.
- Prestakuntza 3 ikasturteetan egiten da, txandaka-sistema erabiliz (%50 IMH-n eta %50 enpresan).
- Ikasleek lan-kontratua dute enpresarekin lehenengo egunetik.

**GESTIO ESKOLA**

**Gestiogintza Aurreraturako ikasketak.**

**Gestiogintzaren kontzeptu integrala eta polibalentea.**

**Trebatzea baino gehiago,  
Heziketa lan sakon bat**

- 4 ikasturteko goi mailako ikasketak.
- Zuzendaritza-lanetan eta enpresa antolakuntzan kualifikatutako direktiboen promoziorako hezkuntz-eredua eskaintzen dugu.
- Praktikak enpresetan 3. eta 4. mailan.
- Gure titulatuak %95ak lanean dihardu.

**Informazio gehiagorako deitu iezaiguzu!! 943 74 41 32 telefonora**  
**Matrikula epea zabalik** (Monika Ezenarro)



MARITXU LOIOLA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Euskalkixak

Bittor Kapanagaren "Araban bagare, Gipuzkun bagera, Ziberun bagire, ta Bizkaian bagara, baita ere Lapurdi ta Nafanan" abestiak argi adierazten du guztiok garala euskaldun.

Benetako altxorra badau gure euskeriak inork izatekotan. Aberastasun aundixa, baina baztertuta egon dan honi ez diou eman balio aundirik; ikusi baiño ez, karrera bat eitxerakuan euskalkixak ze leku izan daben. Testuak aztertu eta lekuen aipamena baiño ez da eitzen. Hau da gainbegiratu bat. Euskalkixak hor daude, ez dago ezer asmau biarrik, bakarrik erdi aiztuta dittugun berba horrek berriz erabiltzen hasi.

Koldo Zuazoren liburuak azken orrixetako batian diona: "garbi dago euskera batua erakutsi bihar dala euskaltegixetan, baina berba egiterakuan, aldiz, herriko euskeratik ahalik eta gertuen dagoan berbetia erabilli biharko litzateke. Horregatik, gero euskaldun barri askok, kaleratzen direnean nekez ententitzen dabe herriko jatorrizkoa.

Gaur egun karrera bat egiten darian, adibidez: filologia, sakontzen, perfil edo abar horren ondorioz lortzen duten agiri horrek ematen diuen kerizpera erakartzen dittue gainontzeko betiko euskaldun zaharrak. Sarritan entzun ohi dou: "ez zaio ulertzen" esaten duena. Oraindik gaur eguneko benetako baserritar batek badaki batekin berba eitxerakoan, lehendabizi bixkaitxarra, Gipuzkoakua, arabarra edo nafarra den eta gero gutxi gorabehera ze herritxakoa izan leiken. Bere ilabardurengatik antz ematen jakue. Nere ustez ikastetxe, fakultate, euskaltegi eta abarretan hori kontutan hartu biharrekua litzake, bestela "euskalkixak bein batian baziala" esango dou.

Koldok dion bezala, "Hen i normaletan, eskolan edo akademixan bigarren hizkuntza bat ikasten daban ikaslia, behin mailla jakin bat lortzen dabanian, hori hizkuntziori egitten dan bere herri-rua juan ohi da... prodixia hobetzera, fonetixia lan-

tzera, hiztegixa osatzera eta, azken baten, hizkuntza bizixa ikastera juan ohi da".

Gaur egun oraindik zenbaitxek euskeriari buruz. berba eitxerakuan nahiko lan izaten dau nondik nora dahilen jakitxeko, izan ere, hitzei ezartzen dien doinua xelebrea eta erdal joskera jasan ezinak geratzen dira. Kanpo herriko hizkuntza asko aztertzen dira eta etxekua nahastau. Euskeriaren inguruko saio txixixak eitten hasi nintzarian hainbat maisu morokori entzuten niuenian neure buruari esaten nion, "gureak egin dik" eta deskuidu santuan euren sermoiekin han hemen segitxu izan balebe baztarrak majo aspertuko zitxuen.

Alde batera utzi dira euskerak ditzuen baliabideetako batzuk, hiztegi aldetik, Azkue eta Mujika ezagunenak eta gero betiko idazleen testuak bai gipuzkerakoak, bizkaierakoak, lapurterakoak...

Nekez ententitzen dia betidanik etxian entzun dittugun berbak: karrajua, zotaskia, etxiak duen abia, eta baita hilbeltza, epaila, jorraila, garagarrila... urteko hilak aipatzerakoan. Izan ere, ez dau ententitzen gehiengo batek eta ententitzen ez duenak nekez egingo dittu ahaleginak ikasteko. Jakitearen ugaritasuna hor dago, besteak beste, egunberoko hartu-emanetarako gure euskailden erabilpenean.

Kontraeskuan besatiraka j arrita ez da zamarik ematen, eta hainbat gutxiago mendez mendez erabili den eta oraindik ere bide eman bihar jakon herriko euskeriari lekuri jartzen ez bajako. Euskalki horrek beti izan dau bere ingurua eta oraindik ere zertxobait entzuten bada, lehengo euskaldun zaharrei esker da; ez behar aina, ze, errezkeriak erdal joskerak leku hartu dio mendez mende tinko egon dan horri. Lehongoko batean, euskararen gordeleku izan den baserritar bati entzun nion honako esaldi hau, "ikusi diot zure amari kalia eta esan dit que laster etorriko dala". Jainkoalaun.

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
IP 943 74 41 12  
Publizitatea:  
w 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-maila:

[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)

Helbide informatikoa:

[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rala Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Amailz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amala Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
ERAZKETA ARDURAOUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E,
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1,038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria,*



||||| ~ ~ ~ •

*Epligizateak*

**41 DANOBAT**

**SIGOIT1**  
GRUPO DANOBAT

## ZUZENKETA

Pasa den astean Ballegoixin poltsikoko telefonoentzako antena erretiratu zutela argitaratu genuen, Udalak hala jakinarazi zigun-eta. Baina, lur horiek ez omen dira Ballegoixikoak, beste jabe batenak baizik. Beraz, akatsa zuzendu nahi dugu eta norbaiti eragozpenak sortu badizkio bar-kamena eskatu nahi diogu.

## Mendaroko Gaztetxearen Aldeko Eldmenaren komunikatua

**M**endaron Gaztetxearen aldeko sinadurak biltzen ari gara. Sinatzen duenarentzat argitu beharrekoa da Gaztetxea diogunean esan nahi dena, Gaztetxea zer den, alegia.

Gaztetxea, gazteen etxea da, gazte sentitzen den edozeinentzat aterpe bat, juntaleku bat den neurrian. Gaztetxea, kolore guztietako jende eta ideiak landatzeko eta hazteko lursail bat da, eta zuhaitz jakintsu horren hazia lortu nahi dugu sinaduraren bitartez.

Aspaldion, Gazteleku koordinatu baten zurrumurrua dabil, gazteak entretina daitezten, koordinatzaile bat ekarriko dutelakoa, alegia. Adierazi nahi da egin nahi direnak 'gazte asanbladetan' erabakiko direla, ideiak gaztetxoek sortuko dituztela eta koordinatu. Gaztetxeak, ordaindutako buru baten irudiarekin apurtzen du, Gaztetxea eta Gazteleku kontrako ideiak dira. Gazteleku, aukera bat baino ez da, Gaztetxea, beniz, aukera guztiak. Aurkakoak direnak ere bere itzalpean gorde nahi ditu.

Horregatik gurasoak eta seme-alabak, amonak eta aitonak, alkate, apaiz nahiz ekologistak, abarkadunak eta korbatadunak, gazte sentitzen zareten mendarotarrak bazarete eta aipatutakoarekin ados bazarete sinatu eta etorri gure bileterara.

P.D. Sinadurak Txirristaka, Ormola eta Leku Ona tabernetan.

**Mendaroko Gaztetxearen  
Aldeko Ekimena**

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



VI111,01X

• Hiru neska gaztek honako galdera hau luzatu digute, **Atxutxi@zapatuetan gehiagotan antolatzeko asmorik ba al dute Atxutxiamaiika Begirale Taldekoek?**

Eli Moreno, Atxutxiamaiikako arduradunak honako erantzuna eman digu: "Aste **Santua baino lehen ez dago atxutxi@zapatuak berriz ere martxan jartzeko asmorik**. Udako oporrak eta beraz, baita udaleku sasoi ere, berehala hasiko denez, maiatzerako ez dugu ekintzarik aurreikusirik. Hala ere, talderen bat osatuz gero, gure aldetik prest gaude ekintzak antolatzeko".

- **AEK euskaltegiak**, euskararen irakaskuntzan abestiak behar duen lekua betetzeko helburuarekin, azken urteotan **abesti herrikoien ikastaroa antolatu du Mikel Markezen eskutik**. "Emanaldia euskaltegiko ikasleei zuzendua izan da eta betiko abesti henikoiak kantatzeaz gain, bertan sortutako giro onaz gozatu ahal izan dugu. **Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Mikel Markezi eta baita Udaleko Euskara Batzordeari ere, ekintza hau antolatzeko jaso dugun laguntzarengatik**".



• **Ikastolako ikasle batzuk Madala inguruan egiten ari diren obretaz kexatzera etorri zalgizku** BARRENEko erredakziora. "Ikasleen sarrera irteeretan Ikastola inguruan eitzen ari diren obrak gelditxuko zitxuztela agindu ziguten, eta lehenengo bi astietan bete zaben emandako hitza, baina jadanik ahaztu dia eta berriz, ere lanian jarraitzen dabe gu eskolara goiazenean".

- Herritar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu, "Urasandi auzoan, **Herri Eskolara joateko bidezidor bat dago, baina 20 metro inguruan ez dago baldosarik lurlean** eta euria egiten duenean dena lokazten da. Jende askok erabiltzen du bidezidor hau, beraz, falta den zatian baldosak jarri beharko lirakekeela uste dut",



• Herritar bat aparkaleku faltaz kexatzera etorri zaigu, "Elgoibarren **autoa aparkatzeko leku falta dagoela gauza jakina da**. Ziur nago herritar askorentzat eguneroko buruhaustea izango dela iluntzean etxera ailegatu, eta autoa aparkatzeko ahaleginean etsita bukatzea. **Hori dela-eta, 'Lagun' zaharra zegoen eraikina edo Pedm Muguruza-ko eskolak aprobetxatu beharko lirakekeela uste dut**. Eraikin hauen beheko solairuetan edo sotoetan aparkalekuak jartzea aukera bat izan daitekeela iruditzen zait, herri erditik urruti xamar badaude ere".

- Urasandi auzoko bizilagun talde batek honako eskaera hau helarazi digu: "Urasandito **parkean esertzeko bankuak jarri dituzte, baina parkeri bizkarra emanez**. Paisaia ikusteko **norbide egokian jarri dituzte, baina parkera haurrekin joaten garenontzat beharrezkoa da haurrei begira egotea**, umeei bizkarra emanez, ezin baikara lasai eseri. Beraz, parkeruntz begira jar ditzatela eskatu nahi genuke".



• Neska koadrila bat **Bernardo Ezenarro kaletik San Roke auzora bitarteko bidean espaloia estuegia dela kexatzera etorri da**. "Azeria estuegixa da eta bi pertsona gurutzatzen danean, batek edo bestiak errepida zapaldu bihar da. Errebuelta haundixak daudenez, egunen baten autuek azpitan hartzeko arriskua egon leike".



- Emakume batek honako kexa hau azaldu digu, "Plaza **Txikian obretan hasi zirenetik, Leku-Ederreko parkean aparkatzen du gidari askok bere autoa**. Autorik gabeko leku gutxi daude Elgoibarren eta baita parke gutxi ere, beraz, dauden apurrak errespetatzen ikasi beharko genuke".

SKI 1911170

# arrantzateen gken altxorra

*Martroaren 18an hasi zen arrantzarako sasoia, eta uztailaren 31ra bitartean Euskal Herriko ibai eta erreka bazterrak arrantzalezjosita ikusiko ditugu, paisajearen parte izango balira moduan. Elgoibarri dagokionez, ibaien kutsadura dela-eta, gutxi dira Deba ibaian arrantza zitekeen garaietaz oroitzen direnak. Gaur egun San Lorentzo errekan dagoen arrantza barrutian bakanik egin daiteke arrantza. Arrantza sistemen eta barrutien funtzionamenduari buruz gehiago jakin nahian bi arrantzale amorraturetzgana jo du. Ibai Ebcabek eta Justo Arriolak ederto ezagutzen dituzte San Lorentzo errekan sekretuak, eta beraiekin batera egin du gu errekan gora*



## ARRANTZA MOTAK

Amuaren arahera 3 arrantza mota ezherdin bereizten dira ibai-arrantzan:

**Txitxare-arrantza:** Txitxare edo tennitak amu moduan erabiliz egiten den arrantza mota da. Amua bota eta arrainek kosk egin arte itxoiten da. Amu artifizialak ere badaude, baina onenak bizidunak dira. Txitxareak saltzen dituzten dendabereziak ere badaude.

**Kutxarila:** Amu artifizialarekin egiten den arrantza mota da. Kasu honetan amua bota eta poliki-poliki batu behar da, horregatik kutxarila izena.

**Euli artifiziala:** Amua uretan sartu gabe, alde batetik bestera airean mugiarazten da. Arrainari euli bat dela pentsaerazi behar zaio. Arrantza mota ikusganienetakoa da, baina baita zailenetakoa ere



## SALLOBENTEKO ARRANTZA BARRUTIA

Gipuzkoako Arrantza Federazioaren ardurapean. 9 arrantza barruti daude, tartean Sallobenteko arrantza barrutia (Autopistako zubitik Sallobentetik gora km. batera dagoen zubira arte). Sallobenteko barrutiak 5 baimen hartzen ditu, eta ostegun, igande eta jaiegunak dira arrantza egunak. Arrantza egin ahal izateko Gipuzkoako Arrantza Federazioari eskatu behar zaio baimena eta ondoren, postuen zozketa egiten da. Arrantza egun bakoitzeko 600 pezeta ordaintzen dira eta arrantza haimenak erahili ondoren nahitaezkoa izango da harrapatutakoaren berri ematea. Horretarako arrantzaleak, hanapaketa-partea aurkeztu beharko dio Arrantza Federazioari, baimenik erahili edo arrainik hanapatu ez bada ere, arrantzan aritu ondorengo 15 eguneko epean.


**G**utxik ezagutuko dute San Lorentzo erreka Justo Arriolak. bezain ondo, erreka ertzean dagoen Gelatxo Errota baserrian jaioa baita. Arrantzan 14 urte zituenetik dabilela azaldu digu, "Lehen gure aitxa zana eta Sebastian Ubiria izeneko beterinarixo bat zian hemen arrantzan ibiltzen zian bakar-rak. Oindiokan goguan dakat nola etortzen zan beterinarixua, baina ez zaban sekula ezer ere harrapatzen, nola harrapauko zaban ba ezer? berakin eramaten zaban oilagor txakurrak amuarrain guztixak ixutzen zitxuan-eta. Gero, neri uzten zian kariaberia eta nik arrantzautako amnarrainak eruaten zitxuan etxera. Hola bixok pozik, nik arrantzan ein nabalako eta bera zestua bete zabalako. Holaxe hasi nitzan arrantzan". Garai hartan San Lorentzo erreka amuarrainez gainezka egoten zela esan digu, "beti izan da



*Justo Arriola Gelatxo-errota baserrian jaio zen, San Lorentzo errekan ertzean, eta 14 urterekin hasi zen arrantzan.*

erreka aberatsa, tamaino txikiko arrainak, baina asko zaozen. Hala ere, libria pasatxoko (500 gramo) amuarraina arrantzau izan dot, nahiz eta heste ibai batzuetan 5 kilokuak ere arrantzaten ditxuen. Gaur egun, berri-iz, arrantzale gazte asko dao eta arrain gitxi. Daozenak oso txikixak, 22cm.tik gorakorik apenas dauan. Azken 2-3 urtietan Lertxunak (Garza) dabiltza erreka inguruan eta hegazti hauek amuarrain asko jaten ditxuela uste dot, hori izan leike arrain gitxi egotian arrazoietako bat".

Justo kezkatzen duen beste kontu bat baimenak banatzeko sisternaren aldaketa da, "oin arte 'La Union' Elkartek banatzen zitxuan Sallobenteko arrantza baimenak, baina aurten Federazivak ematen ditxu zuzenian. Hori dala-eta, kanpoko jendia hasi da etortzen, Bilbotik, Gasteiztik... Hala ere, ez dot uste traba handiegirik ein-gu diguenik bertakuei, ezer arrantzau gabe jun zian-eta".



*Ibai Etxabek euli artifizialarekin egiten den arrantza mota praktikatzen du, besteak beste.*

T bai Etxabe 18 urteko gazteak, bere izenarekin zerikusia duen afizioa du, ibai-arrantza, alegia. Nitak eta bere anaia zahañak sartu zuten arrantzaren munduan 9 urte zituenean, eta berak ere hala egingo omen du semerik edo alabarik izaten duenean. Uda sasoiari arrantzan egitera itsas ertzera joaten bada ere, ibaian arrantzatzea nahiago duela aipatu digu. "Azpeitin (Urrakin), Tolosan, Markinan eta San Lorentzon ibiltzen naiz arrantzan, batez ere". Ibaian ustez arrantzale ona izateko gomendio eta trikimailu asko daude, baina pazientzia izatea funtsezko ezaugarria da, "arrantzan antzeko egun asko daude eta ezer harpatu gabe etxera bueltatzeagatik ez da ezer ere gertatzen. Jende asko denboraldia ireki bezain laster joaten da arrantzara zoroen pare, baina hilabete pasa ordurako aspertu eta katiabera alde batera lagatzen dute. Horregatik diot pazientzia eta lasaitasu-

na beharrezkoak direla, bestela jai dago. Enèkan orduak sartu behar dira eta itxoiten ikasi behar da".

Ibairen iritiz, arrantza barrutiek ibaiak garbiagoa eta zainduagoa egon dadin laguntzen dute, baina hau ez omen da beti horrela izaten, "barrutietan errekek amuarrainez birpopulatzen dituzte, baina San Lorentzo errekek kasuan azken urteotan ez dute arrain berririk sartu. Nire ustez urtetik urtera birpopulatu beharko litzateke erreka, arrantzan jarraituz gero oreka galtzen baita. Gainera, arrantzale askok ez du legea errespetatzen eta legeak onanuktakoak (22 cm) baino antuarrain txikiagoak arrantzatzen dituzte. Haeuei ez zaic txikia edo handia den axola, saskia betetzea baizik. Jarrera horrekin euren buruei kalte besterik ez diete egiten. Zenbat eta arnuatrain txikiagoa izan errazago arrantzatzen da, gainera, esperientzia gutxiago dutenez, azkarrago kosk egiten diote amuari, beraz, ez dauka meritu handiegirik".

## Arrantzarako gomendioak

Arrantzaleek sekreturik eta lekurik onenak eurentzat gordetzearen fama duten arren, Ibaik eta Justok hasi berrientzat aproposak izan daitezkeen pare bat gomendio eman dizkigute:

Eguraldiak zeresan handia du arrantzan.

Eguraldi eguzkitsuak aproposagoak dira kutxarila eta euli artifizialarekin egin beharreko arrantzarako. Ekaitza eta euria egin ondorengo egunak, berriz, txitxare-arrantza egiteko unerik egokienak dira. Ekaitzak ibai ondoko lokatza harrotzen du eta amuarrainak ikusten duten edozeri kosk egiteko prest egoten dira, tartean, noski, arrantzalearen amuari.

Eguraldi eguzkitsua dagoenean, arrainek itzala ikus ez dezaten hurrunetik arrantza egitea komeni da, ezkutuan.

Txitxare arrantzan oso garrantzitsua da txitxarearekin amua guztiz izkutatzea, arrainak oso zuhurrak dira-eta.



*Sallobenteko barrutian arrantza egiteko, Gipuzkoako Arrantza Federazioan eskatu behar dira baimenak eta eguneko 600 pta. ordaindu. Ostegun, igande eta jai egunak dira arrantza egunak.*

Deba eta Urola bailarak dira Euskal Autonomia Erkidegoan bai kalitate onena dutenak

# Elgoibarren benetan bizi kalitate ona dugula irizten al diozu?



**JAVIER ARRESE**

44 urte, montadorea

Nik ez dakitx beste lekuetan nola bizi diran, baina hemen hobetzen guazela uste dot. Hala ere, falta dia gauza batzuk, espazio berdeak eta aparkamentuak, adibidez.



**ITZIAR LIZARRALDE**

48 urte, etxekoandrea

Pentsatzen dot baietz. Krisisa pasauta ondo dixe bizi-tza. Ikusi besterik ez dao herrixan eitzen dabizen obrak, horrek zeozer esatia nahi dau.



**DIEGO BARQUERO**

72 urte, jubilatua


Batzuk ongi bizi dira, baina badaude gaizki pasatzen ari direnak ere. Gauza asko daude hobetzeko, lana adibidez. Lanik balego ez genuke arazotik izango.



**PASCUALA DEL REY**

62 urte, etxekoandrea

Baietz uste dut, ni behintzat oso ongi bizi naiz. Gainera, lehen baino hobeto bizi gara uste dut, gauzak aldatu egin dira eta hori igertzen da.



**NIARTIN FERNANDEZ**

44 urte, elektrizista

Bai, kanpoan lan egin dut eta diferentzia igartzen da. Ongizatea hemen dago eta ez Nueva Yorken. Dini gehiegi dago, baina ez dalcigu ongi erabiltzen. Gutxi dibertitzen gara.



**AGURNE MUGURUZA**

64 urte, etxekoandrea

Ez dakitx nik beste lekuetan zela bizi dan jendia, baina hemen industria aldetik nola lan asko eon dan, igual beste lekuetan baina hobeto bizi gerala uste dot.

**UDALEKU IXIAK**  
Hondarribian (Aste Santua)

Antolatzaileak:  
Elgoibarko Udala  
Atxutxiamaiak B.T.

Iaguntzailak:  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaurlantza  
Foru Aldundia

apirilaren 29an  
goizeko 10,30etan Flaza Handian  
Apirilaren 29cin (zapa) 13,00etan Plaza Handian  
LHko4-5-6  
nbiakoentzat  
7.000 pia

Irteerak  
teknika  
Handian  
Itzulerak:  
a)eguerdiko  
Norentzat:  
Prontzia  
eziaa

Izena etnateko; apirillaren 3tik 14ra K.E.  
E10brtarte 4, arratza  
Tel. 943 74 16 26





# Osa. unean adituak

## GAIA:

## URA, osasunerako beharrezkoa

**U**raren Nazioarteko Eguna izan zen joan den martxoaren 22an, hori dela eta osasunaren atalean uraren beharraz hitz egitea erabaki dugu. Ura edatea beharrezkoa da gure organismoak bere funtzioak modu egokian bete ditzan, hau da, organismoaren ehunak deshidrata ez daitezen.

Urak gure gorputzaren pisuaren %60 eta %70 artean betetzen du, baina organismoan hainbat modu ezberdinetan aurki dezakegu. Odotaren plasman edo zelulak inguratzen dituzten likidoan, esaterako. Hala ere, norbanakoen beharrak pertsonaren arabera ezberdinak dira. Bero handia egiten duenean edo ariketa fisikoa egin ostean normatean baino ur gehiago edatea gomendagarria da, galdutako ura berreskuratzeko (ariketa ordu bakoitzeko litro bat ur gehiago). 65-70 kilo arteko pertsona heldu batek bi litro ur edan beharko lituzke, arnasketan botatako airearekin, txizarekin eta izerdiarekin galdutako gatz mineralak errekupeatzeko.

Ura ez dugu bakarrik kanilatik hartutakoa edo botilakoa denik pentsatu behar. Beste edari batzuk hartzean ura edaten ari gara, adibidez, infusioak edo fruta zukuak hartzen ari garenean, baita barazkiak jatean ere. Urak organismoaren barruan garbiketa lanak egin ohi ditu, baita gorputzarentzat kaltegarriak diren substantziak desagertarazi ere.

Egokiena iturburuko ur mineral naturala edatea da, baina hainbat lekutan hori ezinezkoa da eta ur mineral soilarekin konformatu behar izaten dugu. Gasdun ura sarritan edanez gero, gastritisa sortu daiteke. Bestalde, gatz gutxidun dieta egiten ari bagara, medikuari esan beharko diogu eta sodio asko daukatenak ebitatuko ditugu.

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda Nedikuntza naturala, F. de Bach, masajea, makrobiotika, yoga)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda {Meclikuntza naturala, irtodologia, masajea, reiki, yoga, waseak egunero}

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optometria, kontaktulogia, tonometria, campimetria, audiometria)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Jose Artetxe, 10 • Tel. **943 15 75 74** (Azpeitia)

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

..... San Francisco, 12 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

## PSIKOLOGOAK

**Nare psikologoak** (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra**

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeKo 943 74 41 12ra

## IGurean Bat litzarmenak euskara hutsezko harreman-sarea sortu nahi du

4. urteko lana positiboa izan dela aipatu dute arduradunek prentsaurrekoan

**E**lgoibarko Izarrak 1996an martxan jarri zuen 'Gurean 13ai' proiektua, eta lau urtetan Elgoibarko 53 elkarte eta erakundetan euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginean aritu ostean, arduradunek balorazio positiboa egin zuten joan den astelehenean, martxoaren 27ko prentsaurrekoan. Abel Irizarrek, 'Gurean Bai' hitzarmeneko teknikariak, laugarren urte honetan egin diren lanak azaldu zituen. Ezagutza arloan egindako lana azpimarragarria izan dela adierazi zuen, "bi ikastaro antolatu ditugu, bat entrenatzaile euskaldunak prestatzeko eta bestea elkarte- eta idazkarien euskarazko idatziak hobetzeko. Gainera, euskaltegietan 9 lagun jarri ditugu euskara ikasten". Erabilera arloan erronka berri bati heldu diote; Euskara hutsez funtzionatuko duen harreman-sarea sortu nahi dutenez, udaleko 7 departamentu prestatzen jardun dute.



*53 elkartetan eta erakundetan euskararen erabilera bultzatzen dihardu lau urtez 'Gurean Bai' Euskararen Aldeko Hitzarmenak.*

Harreman-sare honi buruz, Asier Zengotitak, Udaleko Euskara Batzordeko buruak, zera adierazi zuen: "Udalaren inplikazioa dirulaguntzen gainetik egon behar da. Horretarako, Udaleko hiru sailetan (Kultura, Ongizatea eta Idazkaritza) langileak euskaraz trebatzeko ikastaroak jasotzen ari dira, sare honen helburuak lortzeko. Baina honek ez du esan nahi Udalaren apustua sail horietan

geratuko denik. Poliki-poliki udaleko gainontzeko sailak dinamika horretan sartzen saiatuko gara, gure 'lielburua herritarrei rekin harremanak euskara hutsean izateko aukera eskaintzea baita".

### Bigarren faseko helburuak

Iñasio Garmendi ak, Elgoibarko Izarrako lehendakariak, hitzarmenaren bigarren faseko helburuen berri eman zuen: "iaz hiru helburu nagusi finkatu genituen bigarren faseko: batetik, aurreko faseko helburuak mantendu nahi ditugu; bigarrenik, euskara hutsezko harreman-sarea martxan jarri nahi da eta azkenik, 12 urtetik beherako neska-mutilei zuzendutako jarduerak euskara hutsean egitea da gure naha". Lehendakariak aukera aprobetxatu zuen udalari eskerrak emateko, proiektu hau oso osorik finantzatzen baitu.

### • Debarreneko Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteen bihera

Datorren apirilaren 6an, goizeko 11:00etan, Debarreneko Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarateak legezatu ondorengo lehen bilerara egingo du Eibarko Portalea aretoan. Bertan, orain arteko kontaktuen berri emango da eta afiliatuak egiten hasiko dira. Garrantzi handiko gaiak direnez, aurre-jubilatu eta alargun guztiei bertara joateko deia luzatu nahi zaie.

## Arriagako depuradora fondo europearretatik ordaintzeko eskaria egin du Udalak

Arriaga auzoan hondakin-urak biltzeko jarriko den depuradora fondo europearrekin ordaintzeko eskaria egin dio Udalak Eusko Jaur-laritzari. 2000 eta 2006 urte bitartean Euskal Autonomia Erkidegorako 21.000 milioi pezeta emango ditu fondo europearrak eta horietatik 6.200 milioi lehen bi urteetan, Depuradorak gutxi gorabehera 6.000 milioi pezetako kostua izango du. Elgoibarko alkatea, bailarako beste bi alkaterekin batera ur konsortzioaren barruan dagoenez, beraien proiektuei lehentasuna ernaten saiatuko da. Depuradora honek



*6.000 milioi pezetako kostua izango duen depuradorak, erreka ur zikinak batu eta garbitu ondoren errekarara bueltatuko ditu.*

Deba ibaiko ur zikina hartu eta tratatu ostean berriz ere errekarara botako du garbituta.



## Apirilaren 9ra arte egongo da ikusgai J.Agustin Larranagaren margo erakusketa Kultur Etxean

Joan den ostirlean, martxoaren 24an, inauguratu zuten J.Agustin Larrañaga margolariaren erakusketa. Lan-añagak irudiak eta paisaiak marrazten ditu batez ere, eta bere lanen artean Elgoibarko hainbat txoko ere ikus daitezke margotuta. 1987an Donostian lehen erakusketa egin zuenetik bere margoak makina bat herritan izan dira ikusgai. Oraingoan elgoibartarron txanda da eta bere lanak ikusteko Kultur Etxera joan beharko dugu. Erakusketa apirilaren 9ra arte izango da zabalik astegunetan arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan, berriz, eguerdiko 12:00etatik 14:00etara.



## Erantzun zabala izan zuen esplotazioaren aurka Jarraik deitutako manifestazioak

Joan den ostirlean, martxoaren 24an, Borroka Eguna zela-eta esplotazioaren eta lan baldintza eskasen aurka protestazeko manifestazioa deitu zuen Jarrai Gazte Erakundeak. 100 lagun inguruk herriko kaleak zeharkatu zituzten eta ondoren BCH banketxearen aurrean zakarrak utzi zituzten, baita BBVA bankuaren ateari arraultzak bota ere. Protesta ekintza honekin gazteek lanean jasaten duten esplotazioa salatu nahi izan zuten.

## • 111. Idazlan eta Marrazki Lehiaketa liburutegian

VI. Idazlan eta Manazki Lehiaketa antolatu du Udal Liburutegiak. Aurtengorako aukeratu duten gaia "astronauta egun batez" da. Marrazki lehiaketan laugarren mailara arteko ikasleek hartu ahal izango dute parte. Idazlan lehiaketan, berriz, L.H.ko 5. eta G, mailakoek eta D.B.H.ko 1. eta 2. mailakoek. Lanak gehienez orrialde batekoak izango dira eta maiatzaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira Udal Liburutegian. Irabazleen izenak maiatzaren 11n emango dituzte ezagutzera eta lanak Udal Liburutegian jarriko dituzte ikusgai.

## Yolanda Armentak bizilza filosofiari buruzko bitzaldia eskaini zuen Elgoibarren

Yolanda Armenta dietistak, bizitzen filosofiari buruzko hitzaldia eskaini zuen joan den martxoaren 23an, Kultur Etxean. Japoniar medikuntzan espezializatua da eta shiatsuko masterra dauka berak. Kemen belardendak antolatutako hitzaldian 40 lagun inguru izan ziren. Yolanda Armentak energiari buruzko hainbat argibide eman ondoren, gaixotu baino lehen gorputza zaintzearen garrantziari buruz hitz egin zuen, baita gaixotasunen tratamendu alternatiboari buruz ere.



## San Lorentzon ospatu zuten udaberriaren hasiera Herri Eskolakoek

Joan den igandean, martxoaren 26an, San Lorentzon ospatu zuten udaberriaren hasiera Herri Eskolakoek. Gurasoen Elkarteak antolatutako irteera izan zen eta guztira 80 lagun inguru elkartu ziren Sallobenteko kanpan. Plazatik San Lorentzora bizikletaz joan ziren gurasoak eta haurrak elkarrekin. Hamaiketako egin ostean, jolasean aritu ziren eta giro ederrean oso ongi pasa zutela esan digute. Irteera polita izanenez, baliteke datorren urtean ere errepikatzea.



## Eulogio Perez PPko zinegotziak dimititu egin du

Azken gertaera hauek direla-eta EHk, manifestazioa konbokatu du gaurko (ostirala)

**F**ulogio Perez Garayk dimititu egin zuen pasa den ostiralean, martxoaren 24an. Alderdiak Elgoibarko Udaleko zinegotzi kargua uzteko eskatu zion aurreko astebukeraren, 'Azkena' dantzalekuan mozortuta zegoela pistola bat atera zuelako, eta Guardia Zibilak etxean hiru pistola aurkitu zizkiolako, pistolak erabiltzeko lizentziarik gabe. Dimisio akta sinatu zuen egunean, Perezek Euskal Herria uzteko asmoa azaldu zuen lan arrazoiak tar-teko eta aurrerantzean ETArek helburua izan zitekeelako.

Eulogio Perezek, ordea, ukatu egin zuen martxoaren 19an izan zuen istiluan pistola atera zuenik. Bere bertsioaren arabera, "dantzalekuan nengoen bitartean hamaika lagunek erasotu eta jipoiitu egin ninduten. Erasotu nindutenak EH alderdiaren inguruko pertsonak izan ziren".



*Eulogio Perezek sortutako istilua faxismoaren supertzearekin lotzen du EHk.*

### **EH-ren balorazioa**

EH alderdiak Eulogio Perezen istilua beste gertaera batzuekin lotu zuen: Pello Zaharra'ren epaiketean senide elgoibartarrak harrikatu zituzten, Berangon PPko beste zinegotzi batek pistola atera zuen Udaletxean, Madrilén Aitor Zabaleta Re-

aleko jarraitzailea erahil zuen faxista batek.... "Horrek, faxistak inpunitate osoz jokatzeko eta harrotzen ari direla demostratzen du" adierazi zuten. Hori dela-eta, faxisten suspertze hau gelditzeko, EHk manifestazioa egingo du gaur, martxoak 31, Plaza Handitik abiatuta arratsaldeko 20:00etan, "Euskal Herria bai, faxismorik ez" lelopean.

Gainera, EHk beharrezkoa ikusten du Udalak gertaera hauek salatzea. Gobernu B atzordean alderdi abertzaleko ordezkariak, 'persona non grata' izendatzea eta Udala akusazio partikular gisa aurkeztea proposatu zuen. EAJk, aldiz, ezezkoa eman zion. Ondorioz, gaur arratsaldean izango den plenoan eskaera horiek onartzea zaila izango denez, Udalak, gutxienez, gertaeren salaketa egin dezala nahi du EHk.

...



Antolatzaileak:  
Elzoiharku ItatraLO  
Atxtaxiamaika H.T.

1- agutzalleak:  
Elguibarko lidata  
Eusko .lau rlar dta  
ForU Aldundia



Izena emateko:

martxoaren 27tik apirilaren 7ra

**PLAZA MUGATUAK!**

**UDAILK**  
**ITXIALIT**

Elgoibarko Izarra K.E.

Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26

**NOFIG**

Apirilaren 26tik 29ra

**OREINITZAT**

DBHko 1-2 mailakoentzat

**IRTEERA**

Apirilaren 26an (asteazkena)  
goizeko 10,30etan Plaza Handian.

**PREZIOA**

6.000 pta.

**ITZULERA**

Apirilaren 29an (zapatua) eguerdiko 13,00etan Plaza Handian.

711

'11''''F!\bullet-frITYT ■ vr7w7yr.-'

## AGUSTIN MUGERZA:

### "Betizua Euskal Herriko zezen arraza berezixa da"

*Agustin Mugerza Irunaso baserrian bizi da. Igeltseroa da lanbidez, baina bere denbora libre gehiena animaliak zaiztzen ezaten du. Ezagunak dira Irunasoko zezezak, baina gutxi jakinago du San Migel bailarako baserri honetan betizuak dazakatenik. Euskal Herriko zezenak dira betizuak. Hauetaz gain Villano zakurrak ere badituzte, bizkaiko zakur arraza berezia onzen da hau. Animalia arraza kuriosoak dira biak eta hauei buruz jardun dugu Agustinekin hizketan.*

- Zuen baserria zezenegatik da ezaguna, ezta?

- Bai, halaxe da. Berez animalia nahiko estrabagantiak dia eta jentia beti eukitzen du atentzio berezia eurentzako. Uda partian, festetan, Elgoibarren eta beste herrietan zezenak etaratzen ditxugu plazara eta horretarako balio ez dabena okelatarako ibiltzen douz.

- Betizuak ere ba omen dituzue. Zer dira betizuak?

- Zezen arraza bat da, hemen bertakua eta antigualekua. Euren berezitasuna kolore gorrixa da. Ganau txiki- xa eta oso gogorra da, bere bizimodua mendixan etaraten zuana. Berez, deskonfiatuak ere badia. Oin plazetan ibiltzen ditxutenak mestizautadaoz.

- Inguru hauetan gutxi omen daude eta Deba eta Mendaro arteko lurretan denak bildu nahi dituzte.

- Bai, urtero, garai honetan, saneamendu kanpaina eitzen da eta Diputazioko beteinariuxia lehengo arraza zaharran itxuria zeinek dakan beiraten dabil eta selezio bat eitzen dau. Asmua itxurazkue- nak apartau eta beste zezen batekin ipintzia da, arraza mantentzeko. Jabetza geure gain geratuko da, baina Diputazi- zivan kondiziueldn.

- Zakur arraza berezi bat ere baduzue Irunason.

- Oin dala 15 bat urte Kar- rantzatic ekarri nuan 'villano' esaten diuen arrazako txakurra. Ganauak harrapatzeko oso onak urten dia. Kanpotik beir- xuta pentsau leike salbajia da- la, baina ganauei leku onetik heltzen diue eta piskat ondo erakutsi ezkeru ganaue gutxi estropeauta harrapatzen dabe.

- Galtzeaz dauden bi arraza dira betizua eta 'vi- zakurra. Arraza mantentze- arren al dituzue zuek animalia hauek baserrian?

- Ume-umetatik euki dot aparteko afiziva animalixen- tzako, eta bizi guztian zezene- kin ibili gera bueltaka. Dirua- gatik izan balitz onezkeru as- paldi kenduta nakazen, baina gustatzen jatalako mantentzen ditxut. Baitxa arraziagatik ere.

- Luzaroan iraungo al dute betizuek Euskal Her- rian?

- Nahikua galtzen ari zan, baina oindiok badaude arrasto batzuk, onak gainera. Oin mo-

mentuan, berriz errekupe- ratzen hasten bada segiko dabe, baina laga ezkeru galduko da. Horrek penia ematen dia. Bizi guztian Mendarotik Mutriku- rako mendi hortan, Arno men- dixan, beti arraza hori egon da-eta. Gaztia nintzala ixa gal- duan egon zan, baina mendi- xan harrapau ezinda gelditxu omen zian batzuk eta manten- du in da arrazia. Gero Lastur- tik ere ekarritxa arrazia zabal- du da.

- Beraz, baserrian bertako animaliak izatearen aldekoa zara.

Betizuak eta txakurak eukitziaz gain, basurdiak, ahuntzal, ardirak, mendiko bihorrak eta pony txikiak da- karaz. Bihorrek ez dia lehen- oko hemengo pottokak, baina bai mestizautakuak. Ponyak, herrietara umientzat eroaten ditxugunak ere ez dakit segu- ru bertakuak dian, baina saiatzen naiz hemenguak eu- kitzen.

- Basurdeak ere hazten dituzue Irunason, ezta?

- Kapritxoko gauza bat da hori. Urtian behin umiak euki eta lagun artian jateko- eta izaten dia. Urtian gutxi izaten diane, jaixo baino le- hen enkargauta eoten dia.

- Ba al duzu beste animalia arraza bereziren bat ekar- tzeko asmorik?

- Hor zihar jun eta arraza diferente bat ikusi ezkeru be- ti gustau izan zait eukitzia. Iaz basauntzei begira egon nintzan, baina ez zauden sal- tzeko. Mendiko animalia kla- se hori oso gustuko dakat.



# Eguraldia, nekazarien kezka

*Hain euritsua izan den aste baten ostean, metereologiak eta atmosferak laboreen garapenean duten eraginari buruz mintzatuko gara. Klima berotuz doa eta berez euri asko egiten duen lekietan lehen baino zaparrada gehigo izaten dira eta toki beroetan, berriz, eguraldia gero eta lehorragoa da. Nekazariak eta abeltzainak azken aldian lehorreak eraghtdako kalteak pairatzen ari dira.*

**L**aboreak eta espezieak ondo hazten dira tenperatura, hezetasuna eta oro har baldintza metereologikoak egokiak direnean, ez ordea, neurriak parametro zehatz batzuetatik kanpo gelditzen badira. Patatak, esaterako, hazteko etengabe behar du ura eta lehorre batek produkzioa gutxitzeaz gain, patatetan malformazioak eragingo lituzke.

Bestalde, baldintza atmosferikoak kontutan hartu behar dira barazkiak gobernatzeko lanetan. Izan ere, ongarrria bota, ureztatu eta tratatu kondizio jakinetan egin beharreko lanak dira. Eguraldia kontutan hartu ez eta herbi-



*Haizeak eta euriak garrantzi handia dute tratamendu zehatzen funtzionamenduan.*

ziden tratamendu baten ondoren euria egingo balu, tratamenduak ez luke eraginik izango produktua urarekin batera joango litzateke-eta. Gainera, kutsadura eragingo luke. Euri prezipitazioak, tenperatura... kontuan hartuz gero, laboreek teorikoki behar duten ur kopurua kalkula dai teke, honela bere ureztapena nola egin jakingo du nekazariak.

Metereologiak izurriteen eta gaixotasunen garapenean ere eragin handia du. Izan ere, tenperatura eta hezetasun maila gaitza sortzen duten zomorrontzat egokiak badira, arazo larriak gerta daitezke. Beraz, adi egon behar da kasu horietan tratamendu zuzena jartzeko.

1992an kaleratutako ikerketa baten ondorioen arabera, Gipuzkoako potentzialtasun klimatikoa altua da basogintzarako. Ipar-ekialdeko alde da egokiena, urte guztian tenperatura epelak izan arren, euri asko egiten baitu bertan. 600 metrotik gorako zonaldeetan produktibitatea txikiagoa da, izan ere, garai batzutan tenperaturak baxuagoak dira. Artoaren landaketari dagokionez, bi zonalde bereiz daitezke: ipar-ekialdekoa, artoa ureztapenik gabe lan-

datzekoa; eta barrukoa, ureztatu ezean produktibitate txikia izango lukeena.

## Metereologia zerbitzuak

Metereologia zerbitzuek normalean datu orokorrak eman ohi dituzte, **hau** da, Iberiar Penintsula osorako eginak izaten dira gehienetan. Ez dute erakusten area taci-kiagoetan, Euskal Herria, adibidez, izan daitezken klima aldaketak. Nekazariak parametro zehatzagoak behar dituzte berri zabal horien orde. Esaterako, nekazari batek zereala ongarriz zentrifugoe-kin tratatu nahi badu, informazio orokorra entzunda ez du haizearen abiaduraren eta norabidearen herri-ridc izango, eta lan hori egiteko garrantzitsuak dira datu horiek.

Klima, beraz, ezinbesteko faktorea da nekazaritzaren garapenerako. Landareen prozesu biologikoak mugatzen ditu; erretzea, haztea eta loraketa, besteak beste. Landareen garapenean eta ekoizpenean insolazioa, tenperatura eta ura dira eragin gehien duten faktore klimatikoak. Hor ikusi genezake zein garrantzitsua den nekazari-entzate eguraldia eta horren arabera aukeratzen dituzte landaketak egiteko inguru egokiak.

Beraz, nekazariak klimari buruzko informazioa behar dutela gauza jakina da. Izan ere lana metereologiaren arabera antolatu behar dute.

*Tenperatura, prezipitazio eta hezetasun damak jakitea beharrezkoa da, baktintza klimatikoek laboreengan duten eragina aztertzeko.*



# IBARTOLA baserria

*Astelehen arratsalderako egin genuen hitzordua Mari Tererekin. Autoz Ibartolara hurbildu garenean euria goian behean ari zen arren etxeko atarian pasiaran aurkitu dugu bi lagunekin. Babes bila baserriko sukaldera jo dugu eta kafesne beroa prestatu bitartean gurekin hizketan jardun da Mari Tere.*

Kalean bizi dira Mari Tere eta bere senarra, baina ez da egunik Ibartolara jotzen ez direnik. Aurten beteko dira, hain zuzen ere, 17 urte bertara etorri zirenetik. "Honera etortzen gera egunero bazkal ostian eta iluntzian aspertutakuan kalera lotara". Baserrikoak dira bai Mari Tere eta baita bere gizona ere. "Neure basenitan 40 urtera arte egon nintzan, ama naukan edade haundikua, haura baserrian geratu zan eta ni Elgoibarrera etorri nintzan. Neri baserria beti gustau izan zait, besterik ez bada pasiaran ibiltzeko". Amak gustukoa omen zuen baratzean ibiltzea eta arraultzak saltzera plazara jaitea. Mari Terek ez dauka generoa saltzera merkatura jaitsi beharrik, kaletik jotzen zaizkio lagunak baserriko produktua erostera. "Zer daukazun eskau eitzen dizu jentia. Nahikua, atariraino erostunak etortzen dianian, berdura zein arraultza bila. Kalekuak izan edo baserrikuak izan diferentzia haundia dao".

Ganaduak ere izan zituzten garai batean, baina senarra Zumaian hasi zen lanean eta kentzeko esan zion Mari Terek. "Bi behi ekarri ginuzen eta haien txahalak beste bi hazi eta lau danera. Terreno dexentia dakagunez garbi eukitzeko eta gero txahalak ere hazten ginuzen, baitxa esnia saldu ere, baina lan haundia dauka ganauak". Garai batean txerriak ere izan zituzten eta orain oilaskoak ere hazten ditu Mari Terek. "Esnia aprobeztatzearren bi edo hiru urtitan txerria hazi eta ondoren hil eitzen genduan, hiru txerri edo hil ginuzen danera. Oilaskuak oin ere hazten ditxut, iaz bi tanda trizi nitxun".

## Baserrikoa, lan gogorra

Euri zaparrada ari zen kanpoan, baina Antonio lanera irtena zela esan zigun Mari Terek. Hala ere, azken egunotako euriak ongi etorri zaizkie ba, serritarrei. "Gu euri edar honen zai gauden. Kalian andra bati entzun diot 'euri zikin' honeatik kejaka eta esan diot biharrezkua dela baztarrak eta pinuen hautsak garbitzeko".



## Jahea bizilagun

Duela 17 urte baserria erosi zutenean, Antonio eta Mari Tere ez ziren bertan bakarrik bizi. Aurreko bizilagunei etxea erosi zutenean honako tratua egin zuten: baserriko jabea bertan biziko zen hil artean. Halaxe izan zen, Ibartolako jabea izan zuten bizilagun. Dirudienez, baserri askotan egiten dira horrelako tratuak, izan ere, bizitza guztian baserrian bizi ostean zaila edo ia ezinezkoa iruditzen zaie askori kalera jaitea. Orain biak bizi dira Ibartolan eta arratsaldeak lasai antzean igaro ohi dituzte kaleko girotik aparte.

Baserritarrei sarritan entzun izan dieguna errepikatu digu Mari Terek ere, "baserriak lan asko dauka eta diru gutxi". Gizonak kanpoan, tailerlean, egin izan du lan beti. Mari Tere, ordea, baserritik ateratzen zen dirutik bizi izan da. "Oin ere badaude baserritik bakarrik bizi dianak, baina hoiak preparau in bihar izaten dabe inbernaderuekin, dendatara eruateko gauzeekin... Gainera, generalmente gazteren bat ere geratzen da etxerako", esan digu Mari Terek. Opor egunik gutxi eza gututakoak dira Ibartolakoak, "oporrik bat ere ez. Nik oporrak sekula ez ditut ein, ez nere baserrian ezta hemen ere. Baserria laga ezkerro zikinak hartzen du, txo asko sortzen dira... beti oso pendiente egon bihar da. Ni ez naiz akordatzen ezkondu ezkerro `viaje de novios`etik aparte beste inora jun naizenik, eta norabait jun banaiz, bateron bati baserria gobematzeko esanda".

## Pasiatzeko leku aproposa

Berrikuntzen aurkakoak ez dira, baina makinak erosi aurretik asko pentsatu behar dela esan digu Mari Terek. "Nere gizonak askotan esaten du, makinaria

erosten gastatutako dirua ia zela atera leiken gero, amortizatiaz gain norberari bentajia ekarri bihar dio-eta". Lana aibo batera utzi gabe lasaitasunean pasatzen dituzte arratsaldeak Ibartolan. "Hemen-dik ez gera bizi, baina oin piskat pasiau eta aire ederra hartzera etortzen gera. Atmosferia ere kalia baino askoz ederro bilatzen det nik behintzat hemen".

## IBARTOLA

**Auzoa:** San Roke

**Bkilagunak:**

Antonio Albizu, 61 urte

Mari Tere Egiguren, 59 urte


**Lur hedadura:** 17 hektarea.

**Esplotazioa:**

Baratza, etxerako.

# MENDIRIK *menill*

## MADARIXA-LARRASKANDA-OTARRE-LARRASHANDA-MADARIXA



• **1** Madarixako San Isidro plazatik abiatu eta eliza atzetik gora doan errepidetik Itziarre-rako bidera joko dugu. Bertatik bi bihurgune itxi pasa ostean, ezkerretara joango gara zementozko bidetik, Sakonburu izenez ezaguna den lekura.

■ **2** Aldapatxo baten ondoren, Baiona muinora helduko gara eta geroago Ondarroa baserri-rrira. Eskumatara laga eta hormigoizko pistatik jarraituko dugu.

• **3** Bukaera gogor xamarra duen igoera baten ostean, Orandain mendiskara iritsi, hormigoizko pista utzi eta beherantz doan eskumako pistatik jarraituko dugu. Arrospeide baserrira doan bidegurutzea albo batera laga eta Larraskanda Goikoa baserrira helduko gara.

• **4** Handik behera eginez Larraskanda Behekora iritsi eta handik Ugarte Berrirako bidean gora egingo dugu aldapa txiki batetik Otarre gaineraino. Bertatik, Lasturko bailara ederra ikus dezakegu.

• **5** Berriz bueitan Larraskanda Azpikoa pasatu eta Larraskanda Goikora helduko gara. Hemen, etorri garen bidetik itzuli beharrean, baserriaren atzeko aldetik eskumatara, pista bat hartu eta hunengo bidegurutzera iritsi arte gorantz egingo dugu.

• **6** Eskumarantz jarraituko dugu Atxuri baserri alderantz. Basenira heldu baino 20 metro lehenago langa bat gurutzatu eta zelaiaren azpiko aldetik segiko dugu pedalei gogor emanez.

■ **7** Aldapa zorrotz batean behera, pinadi batean sanuko gara Katalotza Azpikoa eta Katalotza Gainekoa haserrien aldamenten igaroz.

■ **8** Pistari segi, errekastoa gurutzatu eta aldapan gora egingo dugu bidegurutzera iritsi arte. Bertan, bide batetik zein bestetik joan, Madarixara helduko gara. Eskumakoa, aldapatxua izan arren, egoera hobean egoten da normalean. Etxague baserriaren aldamentetik pasatu eta errepidera iristen da bidea.

■ **9** Hemendik 50 metro baino ez zaizkigu faltako Madarixara iritsi eta bertan hamarretakoa egiteko.



*Ibilbide laburra baina polita da. Gainera, Otarre mendiko gailurretik, Lasturko bailara osoa ikus daiteke.*

Informazioa:  
Imanol Barrenetxea

Argazkia:  
'Elgoibarko baserriak' liburutik



*Iñaki San Sebastian Fatronik enpresako Ikerketa eta Garapen saileko zuzendaria da. 11 urtetan dihardu enpresa horretan lanean. Duela hiru aste Bilbon izandako Makina Erremintaren azokan Fatronik-ek aurkeztutako makinak diseinu saria jaso zuen. Lehenengo aldiz aurkeztu eta irabazi egin zuen bertan. Guk, hori dela-eta, Iñaki-ekin hitz egin dugu makinaz eta oro har Fatroniken lanaz gehiago jakiteko.*

# IÑAK SAN SEBASTIAN

## "Makina Erremintaren ferriako saria errekonozimendua izan da FatronikenUar

— **Zein sari irabazi duzue?**

- Estatuko Makina Erremintako diseinu saria irabazi dugu. Bi urtetik behin ematen da saria, hain zuzen ere, Makina Erremintaren feria egoten den aldiro. Sari horretarako kontutan hartzen diren zenbait irizpide daude: alde batetik, diseinu industrialia. Beste alde batetik, ergonomia, eta baita segurtasuna ere. Horretaz aparte, hemengo teknologiarekin eginda egon behar du makinak eta fisikoki Bilbon egon behar du, erakusketan. Nik uste dut gure makinaren ardatz nagusia innobazioa dela eta sariak guk egiten dugun proposamena interesgarria eta berria dela baieztatzen du.

— **Pozik al zaudete sari hau jaso duzuelako?**

- Oso kontentu gaude. Gainera, saria eman duen epaimahaiko kideak oso se-

rioak dira. Guretzat errekonozimendua izan da sari hau. Bestalde, makina Bilbon egon den bitartean Makina Erremintaren inguruko jendeak egindako komentarioak entzun ditugu, eta oso positiboak izan dira. Makina asko gustatu zaio jendeari.

— **Makina honetaz gain, besterik aurkeztu al duzue azokara?**

- Guk momentu honetan gure lan ikur nagusienak direnak aurkeztu ditugu. Sei dira guztira: abiadura handiko mekanizazioa, makinenzako estruktura arinak, zinematika paraleloaren makinak, makinaren inguruan dauden zerbitzuen hobekuntza, prozesu berrien lantzea eta diseinuaren prozesua hobetzea. Makina erremintaren negozioan, diseinuarena, prozesu garrantzitsuena da eta guk prozesu hau hobetu nahi dugu. Sei puntu horietatik azokara

hiru eraman genituen. Bata saria irabazi duen makina da. Abiadura handiko makina bat ere eraman genuen, munduan dagoen makina azkarrenetarikoa. Ez dago merkatuan makina azkarragorik. Azkenik, makina handiaren estruktura egiteko era berri bat erakusten duten hiru pieza eraman genituen, barrak eta korapiloak erabiltzen dira estruktura horretarako.

— **Zuen lana sei atal horietara mugatzen al da?**

- Horiek sei atal estrategikoak dira, baina gure lana zabalagoa da. Guk bi ikerketa mota egiten ditugu: bata, ikerketa industrialia. 'Fatronik'en jabeak makina erremintak egiten dituzten 12 enpresa dira eta enpresa horiek proiektu konkretuak eskatzen dizkigute. Hori da gure benetako lana. Baina aldi berean, ikerketa estrategikoan lan egin behar dugu. Etorkizunera begira aritzen gara.

— **Enpresak ikerketaren eta elkarlanaren garrantziaz jabetuta daude, beraz.**

Makina erremintarena oso sektore dinamikoa da. Merkatua oso zabala da eta hemengo makina saltzen bada teknologiarri esker da. Guk ezin dugu kostuetan kompetitiboak izan, gure makinaren ikurra teknologia da. Horrek, lan asko eta berrikuntzan inbertsio handiak eskatzen ditu. Beraz, enpresen arteko elkarlana beharrezkoa da eta horretarako sortu zen 'Fatronik'. Elgoibarren ikerketan lan dezente egiten duten bi zentro daude, 'Ideko' eta 'Fatronik'. Beraz, ez da erraza Elgoibarren dagoen ikerketa maila beste toki batzuetan aurkitzea.

### EESTEK ESANA

"Bere lanian beti bide berriak aztertzen ari dan pertsona da **JOSE MIGEL AZKOITIA**, 'Fatronik'eko proiektuen arduraduna.





LasfACI

F 05+12C1.

sendia hangoa baita, baina egunen batean bertan biziko zenik ez zuela espero aipatu digu. "Turismo ikasketak bukatu ostian, Mallorcako hotel batian ibili nintzan pare bat urtez lanian. Gero, "Erriberriko Errege jauregian" lan eskaintza baten berri euki naban, eta ixa bi urte daruadaz bertan. Bisitarixentzako gidari lanak eitzen ditxut eta oso pozik naio, nere ikasketekin zerikusixa dakan lana baita". Olite 3.000 pertsonako herri txikia baina polita dela aipatu digu, "Gehixenek nekazaritzan eitzen dabe lan, baina uda partian turistez gainezka eoten da. Leku guztixetatik etortzen dia, San Ferminen bueltan esaterako, australiar eta estatubatuar asko etortzen dia. Ostantzian oso herri laisaixa da, herritxarrak ere beste erritno batian bizi dia, trankilao. Hori bai, oso jende jatorra da". Elgoibarko familia eta lagunak bisitatzeraz sarritan etortzen dela esan digu, "sarritan etortzen naiz baina nahi baino gitxio, asteburuetan lan eitzen dot eta. Bestalde, Elgoibarrera juten naizenian mendixak eta paisaje berdiak ikustia eskertzen dot, han dana lautadak dia eta". Beraz, badakizue, inoiz Oliteko jauregia bisitatzen baduzue, Usuak emango dizue 6 naende dituen jauregi zoragarri honen berri.

**Age.**  
= ""

VIAJES EVIDAIK  
**311L3F10 EXPCESS**

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

## Feliciano Diez Rodriguez (19u-1004)



.1911ko urtarrilaren 24an jaio zen Burgoseko Royuela de Rio Franco herrian. Sei anai-arreba izan ziren, bera gazteena. Umetan herriko eskolan ibili zen. Sasoiko ohiturei jarraituz, lagun artean jolasean eta familiarri etxeko lanetan lagunduz pasa zuen gaztaroa.

- 14 urte zituenean auzokoen arropa garbitzen hasi zen herriko errekan, baina ortuko lanak ere egin zituen, hori baitzen nagusi Feliciano jaio zen herrian.
- Denbora aurrera joan ahala, Espinosa de Cerrato, Lerma eta inguruko erromerietara joaten hasi zen lagunekin batera. San Pedro patroia gogoko zuen eta baita bere omenez egiten ziren herriko jaiak ere. Jaietan koadrilakoekin batera kartetan jolastea atsegin zuen.
- Urte luzez jardun zuen aurrez aipatu ditugun lanetan, senargaia topatu zuen arte. Maximo Gonzalez zuen izena eta bere herrikoa zen. Maximo 1944an etorri zen Elgoibarrera eta San Pedroko lutegian hasi zen lanean. Handik denbora gutxira ezkondu ziren beraien herrian. Gero, senarra "Arriola y Cia." fundiziora aldatu zen. Biak ziren langile finak eta estimatuak, eta berehala finkatu ziren Elgoibanen. Mari Carmen eta Jose Antonio dira beraien seme-alabak, suhia, berriz, Aquilino Garcia.
- Feliciano begiratu serioa izan anen, izaera alaiakoa zen eta oso atsegina, adiskide asko egin zituen Elgoibarren. Beraien herri berdineko senar-einazteekin elkartu eta jaioterriko kontuak elkani gogoratzea gogoko zuten. Umorean ahestea ere asko gustatzen zitzaion. Alargun geratu an'en, une asko egin zituen Elgoibarren, eta beti gustura.
- Sinesmenekoa, familia girokoa eta hizlaria zen. Arropak janzteia eta lagun artean kartetan jolastea atsegin zituen. Feliciano Txarriduna'n eta jubilatuetan kartetan jolasten ikustea ohikoa zen.
- 1994ko maiatzaren 13an hil zen, 83 urte zituela,

**Juanito Gorostiza**

41

**HERRI-GAİN**  
**ERRETEGIA**

San Pedro auzoa, 4  
☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

Umaira deitu gabe  
bertakook segituan  
konponduko dizugu  
igogailua

☎ 943 20 35 15  
ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa)  
**920600 EIBAR**



**A**

ste honetako erretratu zaharra **Ana Mari Lopez**, Deban bizi den eigoibartarrak laga digu. Etxea txukuntzen ari zela, kasualitatez argazki hau topatu zuela esan digu.

Santa Klarako eskolaren parean zeuden Goixoko eskilaretan atera zuten enetratua 1959. urte inguruan.

Hona hemen argazkian agertzen diren neska koskorren izen-abizenak:

Goiko ezkerretik hasita: **Ezezaguna, Mari Carmen Agirregornezkorta, Mari Carmen (tanborrera), Raquel Fernandez, Arrate Alberdi, Arrate Uria eta Conce Fernandez.**

Erdiko ilaran, ezkerretik hasita: **Mari Jose Yudego, Maria Asun Lopez, Maria Mercedes Garcia, ezezaguna, Maria Elena Ansola, Mari Tere Arrillaga eta Mari Conchi Zuazubizkar.**

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: **Basili Torral, Garbiñe Mugica, Ana Mari Agerri, Begoila Ortueta, Mertxe Artetxe, Begoña Bli-bao eta Ana Mari Lopez.**

## Asier Arregik Oñatiko txirrindularita lasterketa irabazi du

**F**elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako Asier Arregi gazteak Oñatiko txirrindularitza lasterketa irabazi zuen pasa den asteburuan (hilak 25). Asierrek 13 urte ditu eta infantil mailako 2. urtean dago. Orain dela 4 urte hasi zen txirrindularitzan eta hau izan da bere lehen garaipena. Txirrindulari federatuek eta ez federatuek, guztiek batera hartu zuten parte Oñatiko lasterketan. Asier ez dago federatua, baina bera izan zen federatu gabekoen artean helmugara iritsi zen lehena. Hurrengo lasterketa Elgoibarren (Olason) izango da zapa-tuan, apirilaren lean.



## 'Zur Ta Lur' areto futhol taldea Lige Txapelketa irabaztetik gero eta gertuago

'Cabo Rojo' sailkapeneko Digarren talceari 3 eta 1 irabazi zion partidu erabakigarrian

**P**asa den ostiralean, martxoaren 24an, Autonomi mailako 'Zur Ta Lur' areto futboleko taldeak 3 eta 1 irabazi zuen 'Cabo Rojo' donostiarren aurkako liga partidu erabakigarria. Erabakigarria diogu, bi talde hauen artean erabakiko baita liga txapelketa. 7 partidu falta dira liga amaitzeko, baina garaipen honi esker, 3 puntuko aldea ateratzen diete elgoibartarrek donostiarrei, nahiz eta azken hauei atzeratutako partidu bat falta zaien jokatzeko. Beraz, esku eskura du garaipena talde elgoibartarrak, geratzen zaizkion partiduak irabazteko modukoak baitira. Kiroldegia jendez gainezka egon zen partidu egunean eta elgoibartarrak galtzen hasi ziren arren, gehiago zirela argi eta garbi erakutsi zuten. Iaz bezala, aurtien ere primerako jokua ari dira egiten, txapelketako talderik goleatzaileena eta gol gutxien jaso duena baita. Are gehiago, jokuan zeuden 46 puntuetatik 5 besterik ez dituzte galdu.



Liga Txapelketa amaitzeko 7 partidu bakarrik falta dira eta 'Zur Ta Lur' taldea sailkapeneko lehen postuan dago.

Liga irabaziko balu, Euskadiko txapelketa jokatu luke Bizkaiko eta Arabako txapeldunen aurka, eta Euskadiko txapeldun ateraz gero, berriz, Galizian jokatu den Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratuko luke. Gogoratu, iaz Espainiako txapeldunorde izan zirela "Zur Ta Lur" taldekoak.

### • Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko korrikalariek emailza onak lortu dituzte Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan

Mintxeta-Egondo Atletismo Taldeko Nerea Zubiaurrek eta Dorleta Aranberrik, Euskadiko Eskolarteko Kros Txapelketan hartu zuten parte pasa den martxoaren 19an, Hernanin. Infantil (13-14 urte) mailako Gipuzkoako Kros selekzioarekin joan ziren Hernanira. Nerea Zubiaurre 22. postuan iritsi zen helmugara eta Dorleta Aran-

berri, berriz, 39. postuan. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroatik joandako 90 korrikalari inguruk hartu zuten parte.

Bestalde, egun berean (martxoak 19) Zestoako XXII. Eskola Krosa izan zen. Bertan, Mintxeta-Egondo atletismo Taldeko 11 korrikalari elgoibartarrek hartu zuten parte. Honako hauek izan ziren emaitzak:

### ZESTOAKO XXII. ESKOLA KROSA

#### ALEBIN MUTILAK:

-Aitor Arrillaga X.  
-Adur Juaristi 6.  
-Xabier Mujika 9.  
-Tiigo Aginegomezkorta 16.  
-Alberto Fernandez 20.

#### ALEBIN NESKAK:

-Lara Urain 2.  
-Zitoritz Urain 12.  
-Maider Ofiederra 12.  
-Erika Tena 17.

#### JUNIOR MUTILAK:

-jose Jurado 4.  
-Jon Mekola 1 de 7.

### • adoluristen irteera apirilaren 2an

Elgoibarko L.T.k antolatuta, dornekan, hilaren 19an, izango da 13. zikloturista irteera. Hemendik aurrera bi ibilbide desberdin egingo dituzte, bata luzeagoa eta bestea motzagoa. Goizeko 9:00etan Txan-kakua zubitik abiatu eta Soraluze, Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Arlaban, Villareal de Alava, Kurtzeta, Aramaio, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar zeharkatuko dituzte (101 km.). Ibilbide motza, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Arrasate, Eskoriatza, Arlaban, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 81 km.

# Elgoibarko IX. Duatloia jokatu larunbatean, hilaren lehen

Antolatzaileek 150-200 partaide inguru espero dituzte

**L**arunbatean, hilaren lehen, Elgoibarko IX. Duatloia jokatu da. Urtero bezala, Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako proba hau, Euskadiko Duatloi zirkuitorako puntuagarria izango da. Elgoibarko Urgazi Triatloi taldeak antolatu eta Udalak diruz babesitutako probari arratsaldeko 15:30ean emango zaio hasiera Plaza Handian. Helmuga eta lasterkarien boxeak ere bertan egongo dira kokatuta.

Ibilbideak 3 zati izango ditu. Lehenengo proba herriko kaleetan zehar egingo den saltakako proba izango da (7.500 m). Plaza Handitik hasiko dira antxitxika partehartzaileak. Ondoren, probaren bigarren zatian emango zaio hasiera, bizikleta gainean 33 kilometro egingo dituzte. Ibilbidea urterokoa izango da: Elgoibar, Altzola, Mendaro, Deba, Mutriku, Kalbarrioko gaina, Mendaro, Altzola eta Elgoibar. Amaitzeko, 3.500 metro saltaka egingo dituzte. Azken lasterkariek ibilbidea osoa amaitu orduko 18:00ak inguru izan-



Goiko argazkian pasa den urteko irabazleak. Maila altuko lasterkariak izango dira zapatuan eta zaila izango da elgoibartarrak podiumean ikustea.



go dira antolatzaileek adierazi digutenez. Larunbatera arte ez da jakiterik izango zenbat partehartzaile izango diren. Dena dela, 150-200 atleta bitartean espero dituzte.

## Zuriñe Polok Gipuzkoako Judo Txapelketa irabazi du

**M**artxoaren 26an jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Judo Txapelketa Donostiako Egia Kiroldgian. Alebin eta infantil mailako judoek hartu zuten parte txapelketan, eta elgoibartarrek emaitza onak lortu zituzten. Pilar ikastetxeko Zuriñe Polo izan zen urrea irabazi zuen bakarra, Zuriñe da 44 kg.z azpiko infantil mailako Gipuzkoako Judo Txapeldun berria. 30 kg.z azpiko alebin mailan, berriz, Pilar ikastetxeko Ana Estevezek zilarrezko domina irabazi zuen. Azkenik, Jon Ander Pascualek, Josu Tellabidek eta Aitor Gonzalezek brontzezko domina bana irabazi zuten bakoitzak bere pisuan. Elgoibartarrak fin ibili dira aurten, pasa den urtean baino domina gehiago irabazi dituzte-eta.



Goiko ilaran ezkerretik hasita lehenengoa da Zuriñe Polo. Urrezko domina irabazi zuen infantiletan.

E I MINSZ	
<b>Futbola</b>	
Haundi 0 - Bergara 1 (3. maila)	
Elgoibar 5- Marianistas 1 (Jub. E.L.)	
Tolosaldea 0 - Elgotbar 2 (1. erreg.)	
Hondarribia 1- Elgoibar 2 (2. kad.)	
Ostadar 3 - Elgoibar 1 (Neskak)	
<b>Eskubaloia</b>	
Pagoaga Elg. 18 - C.B Basauri 16 (Kad. nes.)	
Arrasale E.B.14 - Gaur Elg. 19 (Kad. mul.)	
Aloria Mendi14 - Tecromea Elg. 27 (Kad. mul.)	
Uncela Elg. 18 - C.B. Basauri 12 (Juh. nes.)	
Elorrio 24 - I.M.S. Elg. 24 (Senior nes.)	
I.M.H. Elg. 22 - Bizk.Deusto 22 (Senior mul.)	
<b>Areto Futbola</b>	
Zur Ta Lur 3- Cabo Rojo 1 (Autonom.)	
Zur Ta Lur. 2- Bar Irbam 2 (1. maila)	
<b>Esku Pilota</b>	
Deba Arroko Txapelketa	
Ebeniz-Aginebefta 22/ Larraniaga-Leiola 5 (Kad.)	
Etlaba-BefigGeixea 22/ Balzola-La2arobazter 15 (Nag.)	
<b>idarraga Kafeak 3. saria</b>	
<b>HAUNDIko jokalaria erregularrena 99/00</b>	
<b>JOKALARIA</b>	<b>PUNTUAK</b>
1- Aranberri	33
2- Zulaika	28
3- Loren	27
4- Castro	27
5- Castillo	26
6- Polo	21
7- Alberdi	20
8- Baqu6	20
9- Ibarluzea...	19
10- Bravo	16
11- Diaz	15
12- Leonardo	12
13- Mikel	12
14- Ruiz	8
15- Guarrotxena	6
16- Caro	7
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19-Txasio	4
20- Edu	4
21- Fernandez	...2
<b>AGENDA</b>	
<b>Futbola, Mintxetan</b>	
Larunbata, 1	
15:30 Elgoibar - Alde Zaharra (Neskak)	
17:00 Elgoibar - Zumaia (1. erreg.)	
Igandea, 2	
11:00 Elgoibar - Lengokoak (Oho. inl.)	
12:30 Elgoibar - San Ignacio (2. kad.)	
<b>Eskubaloia, Kiroldgian</b>	
Larunbata, 1	
17:00 I.M.S. Elg. - Bera-Bera (Sen nes.)	
18:30 Pneumax Elg. - Bergara (Jub. mul.)	



## Eleberri xarmangarria

Aste honetako liburua ez da Bernardo Atxaga idazle arrakastatsuen azkena. Duela urte batzuk idatzi zuen asteasuarrak "Behi euskaldun baten memoriak" eleberri xarmangarria. Euskal Herrian arrakasta izan zuen eta gure mugetatik kanpo ere oihartzuna eduki du, azken urteetan beste hizkuntza batzuetara itzuli baita. Aipatu bezala, ez da Atxagaren azken liburuetakoa, baina bai, ordea, nire iritziz, bere lan onenetakoa.

"Behi euskaldun baten memoriak" eleberri xarmangarria da. Bertan, behi batek bere bizitzan gertatzen diren gorabeherak kontatzen dizkigu. Beharbada, liburuak daukan ekarpen handiena horixe bera da, behi bat narratzaile paperean jartzea eta gertaerak bere ikuspuntutik azaltzea.

Dena dela, eleberriaren balio bakarra ez da hori, horretaz gain, istorio polita aurkezten baitigu Bernardo Atxagak. Narrazio hau asteasuarraren prosa ederra gozatzegatik bakarrik irakur daiteke, baina kontatzen duen istorioarengatik ere merezi du iralturtzeak.

Jon Eugi


## Kajoi taldeak '01impor antzezlan eskainiko du apirilaren 7an Herriko Antzokian

Lan arazoak eta inkomunikazioa lantzen dituen emankizuna euskaraz izango da

*Kajoi taldeak "Olimpo" antzezlan aurkeztuko du ostiralean, apirilaren 7an Herriko Antzokian, gaueko 22:30ean hasita. Lan arazoak eta inkomunikazioa azaltzen ditu antzezlan honek sei egoera komiko eta amodio istorio baten bitartez. Jon Sarastik zuzendutako emanaldia euskaraz ikusteko aukera izango dute Herriko Antzokira hurbiltzen direnek.*

"Olimpo" antzezlan Jon eta Xabier Riezuarena da. Istorioa aldamiu batean kokatzen da. Uxueri lana eman diote, ETT baten eraikuntzak margotzen aditua dela esan duela. Baina berak ez daki aldamiu batean 50 metroko altueran jardun beharko duenik. Gainera, dituen atsedena laburrak, emakumeekin arazoak dituzten bi gizonekin eman behar ditu: bata Gorka da eta ez da emakume bati hitz erdirik esateko gai; bestea, aldiz, Zhirinovski, Txindoki ezizenez, emakume bat ikusi orduko berobero jartzen den serbiar etorkina. Hasierako elkarbizitza zaila izan arren, egunak pasa ahala, hiru pertsonaien arteko harrernana sendotuz joango da.

Kajoi taldeko aktoreak Dorleta Urreta-



'Olimpo' obraren atzitezleentziko bat 'Goenkate'n Leireren papera egiten zuten Dorleta Urretabizkaia da..

bizkaia (Uxue), Asier Sota (Gorka) eta Xabier Riezu (Txindoki) dira. Imanol Juanes arduratu da eszenografiak eta musika Pello Irizarrek egin du.

## Joxe Mari Karrere ipuin kontalariak "Kondoi bakoitzak du bere historia" narrazioa eskaini du Gaztetxean



Joxe Mari Karrere ipuin kontalaria.

Joxe Mari Karrere ipuin kontalariak "Kondoi bakoitzak du bere historia" saioa eskaini zuen joan zen ostiralean, martxoaren 24an, Gaztetxean. Kontalari gipuzkoarrak astearren egun bakoitzeko istorio bat azaldu zien Gaztetxera hurbildu ziren guztiei. Ordu bete inguru aritu zen Karrere kontu kontari eta bitarte honetan ikus-entzule guztiek adi-adi jarraitu zituzten haren azalpenak. Kondoiak gaitzat zituen nan'azioa bukatuta, txalo zaparradaz agurtu zuten bertaratutakoek Joxe Mari Karrere. Emanaldiaren bukaeran, kontalariak "gustura" aritu zela aitortu zigun.



ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

TABERNA  
TO  
LE  
TXE

Pedro Muguruza 8, behea  
Tel. 943 74 19 48

## APIR1LAK ostirala

19:30etan ONGI-ETORRIA eta LUNTXA

20:00etan INAUGURAZIO EKITALPIA

EKEKEI antzerki taldea

HARITZ Euekal Pantzari Taldea

Berteolariak

ITXAROPENA abebatza

~~14~~ 14AU

Ist

**Gonbidatuta zaudete herritar guztiok!**



# 31 ostirala

## 19:30 BERGARAKO MUSIKA ESKOLAren KONTZERTUA

Herriko Antzokian  
Antolatzailea:  
I. Bereziartua Musikeskola

## 20:00 MANIFESTAZIOA

Euskal Herria bai,  
faxismorik ez'  
Plaza Handian  
Antolatzailea: EH alderdia

## 22:15 ZINEA

"El sexto sentido"

# 1 larunbata

## 15:30 ELGOIBARKO IX. DUATLOIA

Irteera: Plaza Handian  
Antolatzailea:  
Urgazi Triatloi Taldea

## 19:30-22:15 ZINEA

"El sexto sentido"

# 2 igandea

## 9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Antolatzailea:  
Elgoibarko Lagun Taldea

## 19:00 ZINEA GAZTETXEAN

"Vor" (El ladron)

## 19:30-22:15 ZINEA

"El sexto sentido"

# 3 astelehena

## 22:15 ZINEA

"El sexto sentido"

# osteguna

## 21:30 ZINE KLUBA

"Mi vida en rosa"

# 7 ostirala

## 19:30 TOLETXE TABERNAren INAUGURAZIOA

Pedro Muguruza, 8an  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra K.E.

## 22:30 ANTZERKIA

Antzezlanak:  
"Olimpo" (cuskaraz)  
Taldea:  
Kajoi Antzerki Taldea  
Herriko Antzokian

R . . . . . 111 . IR . 11 .

# ZINEA



Zuzendaria: M. Nigh Shyamalan.  
Antzezleak: Bruce Willis, Haley  
Joel Osmont, Toni Collette.

## "El sexto sentido"

Cole Sear, 8 urteko mutiko gazteak botere paranormalak ditu, eta noizean behin manuak agertzen zaizkio. Gertatzen ari zaiona ulertzeko gazteegia da, ordea, eta bere botereak sekretuan gordetzea nahiago du. Malcolm Crowe, haurren psikologo famatua Coleren beldurrak ulertzen saiatuko da. Cole gaztearen botereen egiazkotasuna ikertzen ari dela sekula imaginatuko ez lituzkeen aurkikuntzak egingo ditu.

. . . . . 111 . . . . . RI . 11 .



• **Bergarako Musika Eskolaren kontzertua, gaur, hilak 31, Herriko Antzokian**

Gaur, ostirala, hilak 31, Bergarako Musika Eskolak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian. Saioa arratsaldeko 19:30ean hasiko da. Lehenik haurren abesbatzak 7 pieza abestuko ditu pianoaren eta fagotaren launtzaz. Ondoren, akordeoi orkestaren txanda izango da. Kontzertuan parte hartuko duten musikariak 9 eta 15 urte bitarteko gaztetxoak dira. Datorren apirilaren 7an, berriz, elgoibartarrak joango dira Bergarara, elkartruketa eginez.

• **Jubilatuen txangoa Bizkaiara**

Jubilatuen Biltokiak Bizkaiako bazterrik politenak ezagutzeko asmoz txangoa antolatu du. Apirilaren 12an izango da txangoa eta Plaza Handitik irtengo dira goizeko 9:00etan. Bazkaria Busturia herrian egingo dute eta nahi duenak Butroiko gaztelua bisitazeko aukera izango du

• **Elikadura eta osasunari buruzko ikastaroak 'Kemen' belardendan**

Kemen belardendak antolatuta, apirileko astearte gutzietan elikadurari eta osasunari buruzko ikastaroak izango dira belardendan bertan. Lehenengo ikastaroan, proteinak, grasak eta karbonohidratoak izango dira gai nagusiak. Bigarren ikastaroan, elikagaien nahasketa orekatua. Hirugarrenean, berriz, sukaldaritza sendagarrria, eta azken ikastaroan dieta bereziak aztertuko dituzte. Klaseak arratsaldeko 15:30ean hasi eta 16:30ean amaituko dira. Parte hartu nahi dutenek 1.500 pezeta ordaindu beharko dituzte.

• **Elgoibarko Izarra Elkarteak ITOLEMEI taberna inauguratuko du apirilaren 7an**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak datorren ostiralean, apirilaren 7an, inauguratuko du 'TOLETXE' taberna. Arratsaldeko 19:30ean inauguraziora agertzen diren gutzietan ongi-etorria egin eta luntxa eskainiko zaie. Ondoren, arratsaldeko 20:00etan, inaugurazio ekitaldiari hasiera emango zaio. Ekekei Antzerki Taldeak izango du taberna berriaren aurkezpenaren ardura. Ondoren, Haritz Euskal Dantzari Taldearen agurraren txanda izango da. Gero, bertsolariak izango dira: Irati, Uxue, Meabe, Ziarda eta, Narbaiza arituko dira kantuan. Azkenik, Itxaropena abesbatzak Benito Lertxundiren eta Mikel Laboaren kantak abestuko ditu. Gogoratu henitar guztiok zaudetela gonbidatuta.

• **Reiki eta makillaje ikastaroak 'Surya' belardendan**

Surya belardendak bi ikastaro antolatu ditu. Lehenengo ikastaroa Reiki ikastaroa izango da apirilaren 8an eta 9an. Reiki teknika errazak eta praktikoak erabiliz, gorputz gutziko minak senda daitezke. Ikastaroa edozein adinetako pertsoneri zuzenduta dago. Bestalde, makillaje ikastaroa apirilaren 11n eta 13an izango da. Klase teorikoak eta praktikoak izango dira eta produktu naturalak erabiliz aurpegia makilatzen irakatsiko da. Guztira 6 orduko iraupena izango du ikastaroak. Izen-emateak 6.000 pezeta balio du. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943 74 25 34 edo 626795024 telefonoetara deitu.

• **Euskal Presoen aldeko bilera apirilaren 5ean izango da Mendaron**

Apirilak 5era (asteazkena) atzeratu da Mendaroko alderdi politikoek presoen eskubideen alde hartuko dituzten bideak zehazteko bilera. Kultur Etxean izango da gaueko 21:30ean. Bileran hitz egingo denaren arabera definituko da BATERA plataformaren eraketa Mendaron. Herritar gutztiak daude bileran parte hartzera gonbidatuta.

11 [11 M J]

**FARMAZIAK**

	Egunez	Gauetz
1	Yudego	Yudego
2	Yudego	Yudego
3	Zabaleta	Zabaleta
4	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
5	Escala	Escala
6	Bidasolo	Bidasolo
7	Etxeberría	Etxeberría (Santa Ana kalean)

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**  
 2 igandea Eizagirre

ONGARRI zine kluba



Zuzendarial Alain Berliner.  
 Antzezleak: Michele Laroque, Jean-Philippe Ecoffey, Helene Vincent.

**"Mi vida en Rosan**

Ludovic haur bat da, mutiko bat, baina nekato batek bezala bizi, sentitu eta amestu nahi du. Hala ere, berarentzat munduko gauzarik normalena dena, gainontzekoentzat arraroa da. Ludovic honien seguru ikustean, gurasoek ez dakite zer egin, eta semea ulertzen saiatuko diren arren, auzokoen errezeloak min ematen die. Pertsonen arteko ezberdintasuna eta norbanakoaren askatasuna aldarrikatzen ditu filmak. Sariak: Cannes, Sarajevo eta Urrezko Globo 98.

BER Z ERB 11 • RI • EI • 11 BI 1111

## Lana

### • ESKAINTZA •

- Propaganda buzoneatzeko jendea behar da. zr 943 74 35 44
- Kamareroa behar da Malape tabernarako. re 943 74 19 43
- Esperientziadun pintoreak behar dira. s 606 43 11 20/943 74 15 52
- Pertsona arduratsua behar da 2 haur zaintzeko. Sukaldean moldatzen jakitea komeni da. zr 943 74 35 62 (9:00-13:00/ 17:00-20:00. kziat)

### • ESKAERA •

- Udan lan egingo nuke umeak z.a.inrzen. Uztailean eta abuztuan. tr 943 74 20 74
- Garbiketarako egingo nituzke tabernetan, etxeetan edo tailerretan. tr 943 74 40 57
- Goizetan lan egiteko prest nagoen mutila naiz. Asteleheneretik ostiralera. Edozein lanetan. tr 943 74 44 63
- Neska eskainitzen da goizetan lan egiteko. IT 943 74 29 73
- Esperientziadun neska eskaintzen da edadetuak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko. tr 609 41 73 52 (Rosa)
- Esperientziadun neska eskaintzen dugarbiketarako lanak egiteko (tabernak, etxeak...) tr 943 17 29 20 (Maite)

## Etxebizitzak

- Pisua salgai liliigez de Karkizano kaleamir 943 73 13 63
- ♦ 3 gelako pisua erosiko nuke Elgoiharren. rx 943 74 13 11 (Jabi)
- Pisua erosiko nuke San Roke auzoan. zr 943 74 82 66
- Etxehizitza baten bila gabiltza. Ahal bada 2 edo 3 logelakoa. ir 600 085 886
- Apartamentua salgai Deban, Itsasbegi kalean. Garajea dauka. tr 943 19 23 48
- Apartamentua alokaintan Benidormen. tr 943 74 06 28/ 943 76 63 21
- Gela hat daukat alokatzeko. u 943 74 18 81
- Konpartitzeko pisu bat edo logela hartuko nuke alokairuan. 667 91 22 51
- Etxea hartuko nuke tdokairuan Elgoibarren. 3 gela edo 2 logela eta egongela. Altzariarik gabe. lr 696 47 16 95
- Ikasle pisua osztzeko jendea behar da. 2 logela libre. zr 943 62 53 77 (Fernando)

## Salerosketak

- Arkoi izozgailua salgai. Ertaina. Egoera onean. ir 943 65 49 71
- Opel Calibra 20001 salgai. tr 943 74 37 74 (20:00etatik 21:00etara bitartean deitu)
- Gasoilezko estufa salgai. Zr 943 74 21 33 (Francisca)
- Opel Vectra auto berria salgai. 15.000 km. Auto txiki baten ordez aldatzeko ere prest nago. tr 943 74 13 11 (Jabi)
- 40 urteko josteko makina salgai. Egoera onean. ir 943 74 27 79
- Ordenagailuarentzat mahaia salgai. Erabili gabe. zi 943 74 32 98
- Ohea egiten den 90cm zabaleko sola salgai. Egoera onean. Beni-be-[ria.tr](http://ria.tr) 943 74 21 68

## Partikularrak

- Enpresaritzatik ikasten ari naiz eta finantza matematika, kontabilitatea, mikroekonomia eta informatikako klase partikularrak behar ditut. Norhait emateko prest balego deitu telefono honetara: tr 943 74 41 64 (Jon)

## Bestelakoak

- Game Boy bat aurkitu dut. Tr 943 74 24 83
- Emakumezkoen erloju txiki bat aurkitu dugu San Bartolome kalean. zr 943 74 08 48
- Istripu bat ikusi zuten lekukoak behar dira. Martxoaren 4an (Inauteri eguna) izan zeu istripua gaueko 21:00etan. Autoak: Opel Corsa BI-9769-AM eta Volkswagen Golf BU-8887-K. s3 943 74 46 54
- Gaztetxerako aulkiak eta mahaiak behar dira. Soberan izan eta ematea nahi baldin baduzue deitu. Jasotzera pasako gara. ts: 943 74 35 72

## Ohatara

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

## Garajeak

- Marradun garajea alokatzen dut Arregitorrenfr 943 74 33 43 (20:00etatik aurrera deitu)
- Garajea alokatuko nuke Ikastola ondoan. 7r 943 74 28 24
- Garajea salgai Pista Beltzean. zr 943 74 00 39

## Agurrak

- Superzorionak Pilar B taldeari. Futboleko Gipuzkoako Txapelketarako klasifikatuak izan direlako. Lagun sekretu baten partez.
- Zorionak Estitxuri, apirilaren 2an 12 urte beteko dituelako. Zein ondo pasatuko dugun!
- Zorionak Ainhoari urteak bete zituelako martxoaren 30ean. Bere nobioaren partez.
- Zorionak Iriego Larizi, azken aldian txirindularitzan irabazi dituen lasterketengatik. Ea zortea lagun izaten duzun Frantzia aldean korrituko duzun proban. Zure zallegoa.
- ♦ Zorionak Iruene Martinezi, martxoaren 21ean 12 urte bete zituelako. Admiradore sekretuen partez.

- Zorionak Igor Uliharriri, martxoaren 22an 11 urte bete zituelako. Familiaren partez.

- Zorionak ama Aurora, hilaren 22an urteak bete zituelako. Familiaren eta hereziki Egaitzen eta Andreamen partez.



- Gaurkua urtiak betetzeko egun aproposa, ezta? Zer uste zendun ez ginala akordatzeko ala? Zorionak lagunaren partez.



- Azkenean zuei ere iritsi zaizue zorioneko eguna. Argazkian bezain irrifartsu eta maiteminduta luzaroan jarraituko duzuelakoan, zorionak Miren eta Ion eta ondo pasa familiaren partez.



- "Ni bizi naiz baserrian, animalien erdian, tralaralaraIala..." Zorionak Koro eta Andoniri. Ondo pasau! Koadrilakoen partez.

- Zorionak Arianeri, hilaren 28an 18 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiaren partez.



- ♦ Zorionak Juleni, hilaren 29an 2 urte bete zituelako. Familiaren partez.



- Zorionak Nerea Herviasi, apirilaren 2an 10 urte beteko dituelako. Gurasoen, aiton-amonen eta neba Ivanen partez. Ondo pasa.



- Zorionak Julene Leoni, atzo 19 urte bete zituelako. Lagunen partez.



- Zorionak Unairi, gaur, martxoak 31, 8 urte bete dituelako. Familiakoaren partez.



- Zorionak Unai Ortuosteri, atzo 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiaren partez.



J.º 4/11k11, F.º

PROMOZIO INMOBILIARIOAK

GURE IBILBIDE

PROSESIONALAK

GURE ERAIKUNTZEN

KALITATEA

GARANTIZATZEN DU

*lizio 10 1,040<sup>11</sup>*

INFORMAZIOA eta SALMENTA obra bertan • Tel.: 943 75 51 68 • 94 491 23 19


**LEIGAR** ELEKTRAGAILUAK  
MANU LEIZABE LOYOLA



**TB - BIDECD - 1-11-F1 DVD**

Salmenta eta zerbitzu teknikoak

Errosario, 8 Tel. 943 74 00 54



# KULTURA

EUSKARAZ

# OLIMPO



**KAJOI**  
eszena

apirilak 7, ostirala  
gaueko 22:30ean  
HERRIKO ANTZOKIAN

**AKTOREAK**

Uxue  
Gorka  
Txindoki

ARG1AK  
JANTZ1AK  
ESZENOGRAFIA  
EKOIZLEA  
MUSIKA

ZUZENDARIA

Dorleta Urretabizkaia  
Asier Sota  
Xabier Riezu

Patxi Ariztimuno  
Luis M. Del Olmo  
Imanol Juanes  
Marijo Stefania  
Pello frizar

Jon Sarastl



Ku Itura